



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Zorroza gestión de residuoseko langileek pairatzen duten prekarietatea salatu nahi dugu

Atzo, otsailaren 25ean, bere lanpostuan langile bat hil zela deitoratu behar izan genuen berriro. Prekarietatea eta horri lotutako lan-istripu hilgarriak oso gogor ari dira kolpatzen Aiaraldea zehazki, eta Euskal Herria oro har. Dagoeneko 14 heriotza izan dira 2020an Euskal Herrian, eta 2 pertsona desagertuta daude Zaldibarren.

Duela egun gutxi Laudioko langile baten heriotza salatu genuen, eta orain Aiaraldean gertatutako beste lan istripu hilgarri baten albistea iristen zaigu; zehazki, Murgan (Aiara) kokatuta dagoen Zorroza gestión de residuos enpresan.

Heriotza honek agerian utzi ditu enpresa honetako langileen lan-baldintzak:

- Eguneko 10 orduko nahitaezko lanaldiak.
- Enpresak ez dizkie langileei beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamendu guztiak ematen.
- Soldatak baxuak dira.
- Lan-erritmoak oso altuak dira.
- Ez dago fitxatzeko sistemarik.
- Instalazioen garbitasuna desagokia da.
- Langileek ez dute inolako prestakuntzarik jasotzen laneko arriskuen prebentzioaren arloan.
- Enpresako gerentziaren partetik hitzezko tratu txar jarraituak.
- Eraso fisikoko gertakari bat.

LAB sindikatutik, bertako langileek pairatzen duen babesgabetasun egoera hau publikoki salatzea behartuta ikusten dugu gure burua, eta ezinbestekoa iruditzen zaigu erakunde publikoak interpelatzea, neurri faltagatik halakorik berriro gerta ez dadin. Beharrezkoa da erakundeek zaintza, kontrol eta jarraipen neurri eraginkorrak ezartzea.

Zoritxarrez, prekarietatea Aiaraldea eskualdeari indar handiagoz kolpatzen dion epidemia bat da. Horren adibide dira Zorroza gestion de residuos inguratzen duten enpresak; Tubos Mecánicos Norte enpresa otsailaren 10etik greba mugagabea dago, Garobel enpresako langileak etorkizuna arriskuan dute, etab.

Euskal Herrian aurten gertatutako istripu hilgarrien kopurua neurrigabea da, inoiz baino indar handiagoz borrokatu behar dugun sarraski bat, fabriketan bertan eta era irmo batean. Horregatik guztiagatik, erakundeei exijitzen diegu lan-prekarietatearen aurrean benetako eta premiazko neurriak har ditzatela, eta Aiaraldeko eskualdeari eskatzen diegu ez dezala zalantzarik izan sarraski honi aurre giterako orduan, gaurko deitutako mobilizazioetan parte hartuz:

12:00etan euskal gehiengo sindikalaren kontzentrazioa Murgan, Zorroza gestion de residuos enpresaren aurrean, 12:00etan.

19:00etan manifestazioa Amurrioko Herriko plazatik, Aiaraldeko greba batzordeak deituta.

Laudion, 2020ko otsailaren 26an